




**P**entekoste  
**JAI**AK 2007  
Bergara

# PENTEKOSTE JAIK 2007



Urtero bezala, batzuetan lehentxoago beste batzuetan gerotxoagoa, badatoz Pentekoste jaiak. Eta jaiekin batera, dibertitu beharra ere heltzen zaigu bergararroi eta Bergarara hurbiltzen direnei. Bakea eta alaitasuna nahi genuke guztiontzat, salbuespenik gabe, batez ere gurekin ez daudenentzat.

Kezkak uxatzea, umore eta alaitasun osasungarriak izatea, bergarar eta guztion lagun sentitzea eta bereizten gaituzten ezberdintasuna ahaztea izan daitezke ondo pasatzeko errezeta egokiak.


Eskerrak eman nahi dizkiet jai-egitaraua egiten parte hartu dutenei, eta espero dut guztiok gogoko izatea.

Aurten, jaiak bat etorriko dira Udal-hauteskondeekin eta nire agurrarekin. Alkatetzan 16 urte eman ondoren, kargua utziko dut. Ilusioz betetako lan biziko urteak izan dira, Bergara modernoagoa lortzeko, zerbitzu gehiagorekin eta bizi-kalitate hobearrekin.

Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, lau legealdietan lanean jardun duten zinegotziei, baita Gobernu-taldeak osatzeko konfiantza eman diguten eta udalaren kudeaketan parte hartu duten herritarrei eta Udaleko pertsonalari ere, beraien ahalegin eta arduragatik. Eskerrik asko guztioi eta jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Hortaz: Eskerrik asko bergarar guztioi!

*Victoriano Gallastegi  
Bergarako Alkatea*





## Azalaren egilea:

Irene Abad Finerda

## Eskuprogramaren makelazio eta inprimaketa lana:

Geru Komunikazio Bide, s.l Orati

L.G.: SS 672/2007



Como todos los años, con puntualidad más o menos apresurada, por tratarse de fiestas móviles, llegan las Pascuas y la obligación de bergarases y visitantes es divertirse. Paz y alegría que quisiéramos fuese compartida por todos sin excepción, principalmente por nuestros ausentes.

Desterrar preocupaciones, humor y alegría saludables y sentirse solamente bergarases y amigos de todos, olvidando diferencias que pudieran separarnos, pueden ser recetas válidas para pasarlo bien.

Mi agradecimiento a todos los que han participado en la elaboración de este programa que, espero, satisfaga a todos.

Este año, las fiestas coinciden con las Elecciones Municipales y con mi despedida como Alcalde tras 16 años en el cargo. Han sido años de intenso e ilusionado trabajo para intentar conseguir un Bergara más moderno, con más servicios, con mejor calidad de vida.

Mi agradecimiento a todos los concejales por su colaboración, en las cuatro legislaturas; a los vecinos que nos han dado su confianza para conformar los equipos de Gobierno correspondientes y han participado en la gestión municipal y al personal del Ayuntamiento, por su esfuerzo y dedicación. Gracias a todos y que disfrutéis de unas felices fiestas!

Por tanto: ¡Muchas Gracias a Todos los Bergarases!

*Victoriano Gallastegi  
Bergarako Alkatea*



# Maiatzak 24 osteguna

17:00 Eskola kirol ikasturte bukaerako jaiak Udal Pilotalekuan eta Mariaren Lagundian. *Fiesta de fin de curso del deporte escolar.*

# Maiatzak 25 ostirala

20:00 JAIEN HASIERA, etxafuegoen jaurtiketa eta Bitorianatxoren jaitsierarekin, San Martin plazan.

Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.

*INICIO DE LAS FIESTAS, lanzamiento de cohetes y bajada de Bitorianatxo, en la plaza San Martín.  
A continuación, PASACALLES DE LA BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA.*

20:30 Txatunga Bembe taldekoekin KALEJIRA Bergarako kaleetan.

Iluntzean Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA, eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.

*PASACALLES amenizado por el grupo Txatunga Bembe.*

*Al anochecer, APERTURA DE BARRACAS en Matxiategi, y APERTURA DE TXOSNAS en Bideberri.*



# Maiatzak 25 ostirala

22:30 KONTZERTUA Bideberrin BELCEBLUES, RED HOUSE eta 12 TRIBU musika taldeekin.  
*CONCIERTOS en Bideberri con los grupos BELCEBLUES, RED HOUSE y 12 TRIBU.*

22:30 "0,7 CABRIOLAS Y DIABLITOS" taldearekin KALEJIRA eta SU IKUSKIZUNA San Martin plazan hasita.  
*PASACALLE y ESPECTACULO PIROTÉCNICO con el grupo "0,7 CABRIOLAS Y DIABLITOS", comenzando por la plaza San Martín.*



23:30 ERDIZKA LAUETAN erromeria, animatzaile eta guzti, San Martin plazan.  
*ERDIZKA LAUETAN, romería con animador incluido, en la plaza San Martín.*



# Maiatzak 26 larunbata



09:00 **BIGANTXAK** Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan.  
*VAQUILLAS en la plaza de toros instalada en el patio del Seminario.*

09:00 **XXVII.HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA**, Beart Bergarako Arte elkarteak antolatuta, San Martin plazan. Euria eginez gero Beart-en egoitzan, Bolu 49n.  
*XXVII.CONCURSO DE PLÁSTICA PARA NIÑO/AS Y JÓVENES, organizado por la asociación de arte Beart de Bergara en la plaza San Martín. En caso de lluvia, se realizará en la sede de Beart en Bolu 49.*

# Maiatzak 26 larunbata

10:00 **DIANA**.  
- Bolutik Kobok dultzaineroak  
- Labegaraietatik Udal Txistulari Banda  
- Oxirondotik losu eta lokin trikitalariak.

Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

*DIANA. Los dulzaineros de Kobok partirán desde Bolu, la Banda Municipal de Txistularis desde Altos Hornos, y los trikitalaris losu y lokin desde Oxirondo. Tras juntarse todos en la plaza San Martín, visitarán a lo/as residentes de Mizpirualde.*

**EGUN GUZTIAN DEBA ETA HONDARRIBIKO ERRALDOIAK IKUSGAI EGONGO DIRA HERRIKO PLAZAN, KALEJIRA HASI ARTE.**  
*Lo/as gigantes de Deba y Hondarribia estarán expuesto/as en la plaza durante todo el día hasta el comienzo del pasacalles.*



# Maiatzak 26 larunbata

- 10:00 Euskadiko BANAKAKO XAKE TXAPELKETA Agorrosingo ekitaldi aretoan.  
*CAMPEONATO INDIVIDUAL DE AJEDREZ de Euskadi en el salón de actos de Agorrosin.*
- 11:00 Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan, Lacor-en laguntzarekin eta Josu eta Jokin trikitilariak alaituta.  
*CONCURSO DE BACALAO en la plaza San Martín, con la colaboración de Lacor y amenizado por los trikitilaris Josu y Jokin.*
- 13:30 Haur eta gazteen plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan. Euria eginez gero Beart Bergarako Arte elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).  
*REPARTO DE PREMIOS del concurso de plástica para niño/as y jóvenes, en la plaza San Martín. En caso de lluvia, el reparto de premios se llevará a cabo en la sede de la asociación de arte Beart de Bergara (Bolu 49).*
- 16:00 Haur eta gaztetxoentzat ZIRKO TAILERRAK Munibe plazan.  
*TALLERES DE CIRCO para niño/as y jóvenes, en la plaza Munibe.*
- 16:00 XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa Agorrosingo ekitaldi aretoan.  
*Campeonatos de Euskadi de PARTIDAS RÁPIDAS por equipos, en el salón de actos de Agorrosin.*
- 18:15 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.  
*BOMBAS JAPONESAS para niño/as en la plaza San Martín.*

# Maiatzak 26 larunbata



Ondoren...

*A continuación...*

BERGARAKO, HONDARRIBIKO eta DEBAKO ERRALDOI, KILIKI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako Gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.

*PASACALLES CON LA COMPARSA DE GIGANTES, KILIKIS Y CABEZUDOS de BERGARA, HONDARRIBI y DEBA con la compañía de la Banda Municipal de Txistularis y de los gaiteros de Bergara Kobok. Recorrido: Plaza San Martín, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, plaza Fraiskozuri, paseo Irizar, Barrenkalea y plaza San Martín.*

# Maiatzak 26 larunbata

- 19:00 GAZTETXOENTZAKO ZEZENTXOAK ETA PONIAK Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan.  
*VAQUILLAS Y PONIS para jóvenes en la plaza de toros instalada en el patio del Seminario.*
- 20:00 ZPEIZ MUKAKI dantzarangakoek Bergara guztia jarriko dute dantzan! 80.hamarkadako euskal rocka, txaranga bat eta aureskua nola uztartu? Hemen duzu adibidea!  
*La dantzaranga ZPEIZ MUKAKI revolucionará todo Bergara. ¿Cómo fusionar el rock vasco de los 80, una txaranga y el auresku? Aquí tienes el ejemplo.*
- 22:30 KONTZERTUA Bideberrin ABY KEM, CIRCUS A.D, FLY SHIT eta RABIA POSITIVA taldeekin.  
*CONCIERTO en Bideberri a cargo de los grupos ABY KEM, CIRCUS A.D, FLY SHIT y RABIA POSITIVA .*



# Maiatzak 26 larunbata

- 23:00 DANTZALDIA Geiser Band taldearekin San Martin plazan.  
*Bailables con el grupo Geiser Band en la plaza San Martín.*

**Euskadiko Open Motokross txapelketa, Arrasate Motozale Elkarteak antolatuta, Eginoko zelaietan (Candy lantegiaren ondoan).**

- 11:45 Entrenamenduen hasiera  
*Comienzo de entrenamientos*
- 13:30 Goizeko lasterketaren hasiera  
*Comienzo de la carrera matutina*
- 16:00 Arratsaldeko lasterketaren hasiera  
*Comienzo de la carrera vespertina*
- 19:30 Sari banaketa  
*Reparto de premios*

# Maiatzak 27 igandea

- 08:00 ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.  
*ALBORADA con la banda Municipal de Txistularis.*
- 09:00 BIGANTXAK Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan.  
*VAQUILLAS en la plaza de toros instalada en el patio del Seminario.*
- 10:00 "LXXI.Pentekoste Saria" TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzo auzotik.  
*CARRERA CICLISTA "LXXI. Premio Pentecostés", para corredores menores de 23 años y corredores de élite, organizada por "Lokatza Ziklismo Eskola". Puntuable para el trofeo Lehendakari. Salida desde el barrio San Lorentzo.*
- 11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal korporazioa mezetara joango da, Udal Musika Bandaren eta Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin.  
*MISA MAYOR en la parroquia de San Pedro. Asistirá la corporación municipal y contará con la participación de la Banda Municipal de Música y la Banda Municipal de Txistularis.*

# Maiatzak 27 igandea

- 11:30 BIKE TRIAL ERAKUSTALDIA Benito Ros munduko txapeldunaren eskutik, San Martin plazan.  
*EXHIBICIÓN DE BIKE TRIAL con el campeón mundial Benito Ros en la plaza San Martín.*
- 12:30 Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.  
*CONCIERTO de la Banda Municipal de Música en el Espolón.*

## Egitaraua/programa:

- |                         |                      |                |
|-------------------------|----------------------|----------------|
| - CAMPO DE ROSAS        | pasodoblea           | M.Gz.Bastida   |
| - ATHALIA               | obertura             | F.Mendelssohn  |
| - EZPATA DANTZA         |                      | M.Gz.Bastida   |
| - EL DUO DE LA AFRICANA | zarzuelako selekzioa | M.F.Caballero  |
| - THE GIRLS OF JOBIM    |                      | A.Ch.Jobim     |
| - BERGARAKO ERESERKIA   |                      | A.Gz.Chirlaque |

Zuzendaria/director: Alfredo Gz. Chirlaque

# Maiatzak 27 igandea

- 16:00 BTLS 7-OPENA, FUTBOLIN eta DARDO TXAPELKETA, Munibe plazan (euria egiten badu Udaletxeko arkupetan).  
16:00 – 17:00 Izen-ematea. Parte hartzaileek ez dute ordaindu beharko.  
17:00 Txapelketaren hasiera.  
22:00 Dardo txapelketaren finala.  
23:00 Futbolin txapelketaren finala.

*OPEN BTLS-7, CAMPEONATO DE FUTBOLÍN Y DARDOS, en la plaza Munibe (en caso de lluvia en los arcos del ayuntamiento).  
16:00 – 17:00 Apertura de la inscripción. La inscripción será gratuita.  
17:00 Comienzo del campeonato.  
22:00 Final del campeonato de dardos.  
23:00 Final del campeonato de fútbolín.*

- 16:30 HAURRENTZAKO TXOTXONGILOAK Simon Arrieta plazan: Kilima taldearen "KARRAKELA" antzezlan.  
*TXOTXONGILLOS para público infantil en la plaza Simon Arrieta: La obra KARRAKELA de la compañía Kilima.*
- 17:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONAL IKUSGARRIAK Udal pilotalekuan.  
*ESPECTACULARES PARTIDOS DE PELOTA PROFESIONALES en el Frontón Municipal.*

# Maiatzak 27 igandea

- 17:30 XXX.EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA, 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Kutxaren laguntzarekin eta Abarka dantza elkarteak antolatuta. Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.  
*XXX. CAMPEONATO DE EUSKADI DE BAILE AL SUELTO, para parejas menores de 16 años, en la plaza San Martín, con la colaboración de Kutxa y organizado por Abarka dantza elkarte. El acto estará amenizado en todo momento por los trikitilaris y por la Banda Municipal de Txistularis.*

- 19:00 BERGARAKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUN MUNDIALA zezen-plazan. Kulunpioa, quad toreroa, igerilekua...  
*FESTIVAL OFRECIDO POR LOS RECORTADORES DE BERGARA en la plaza de toros: columpio, quads torero, bañera...*





# Maiatzak 27 igandea

22:00 DEABRU BELTZAK taldearen Bandé Deplacée ikuskizun berria San Martin plazan hasita.

*Bandé Deplacée, nuevo espectáculo de DEABRU BELTZAK, comenzando por la plaza San Martín.*



22:30 Kontzertua BIDEBERRIN, DEFAULT, FBA eta LORD WITCH taldeekin.  
*Conciertos en BIDEBERRI con los grupos, DEFAULT, FBA y LORD WITCH*



# Maiatzak 27 igandea

23:00 DANTZALDIA Nueva Alaska taldearekin San Martin plazan.  
*BAILABLES con el grupo Nueva Alaska en la plaza San Martín.*



## ETA LABEGARAIETAN... SKATE FESTA EN LABEGARAIETA... FIESTA SKATE

*Egun guztian zehar DJ-ak eta...  
DJ's durante todo el día y...*

11:00 – 14:00 Skate librea Labegarietako instalazioetan.

*Skate libre en las instalaciones de Labegarieta.*

14:00 Bazkaria bertan egindako parrilladarekin, Giokelaren laguntzaz.  
*Parrillada con la colaboración de Giokela.*

16:00 Skate txapelketa.  
*Campeonato de Skate.*

18:30 Sari banaketa.  
*Entrega de premios.*

18:45 Bi musika kontzertu.  
*Dos conciertos de música.*

Maiatzak 28  
astelehena

## KUADRILEN EGUNA

09:00 LASTURKO ZEZENAK Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta. Ondoren ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Bergarako errektadoreen eskutik. 16 urte arteko gazteentzat.

*VAQUILLAS en la plaza de toros instalada en el patio del Seminario, animada con la música de los dulzaineros de Elgoibar. A continuación ESCUELA DE RECORTADORES. Los recortadores de Bergara enseñarán cómo saltar y hacer quiebros delante de las vaquillas. Para jóvenes de hasta 16 años.*



10:30 PLATER TIRAKETA Gorkako Irubide zelaian, Ollagorra taldeak antolatuta.  
*TIRO AL PLATO en la campa Irubide de Gorla, organizado por Ollagorra.*

Maiatzak 28  
astelehena

11:00 – 15:00 Barrakak merkeago, euro batekin 2 bidai.

*Ven a disfrutar de las barracas por un precio más barato: 2 viajes por un solo euro.*

12:30 EGUERDIKO KONTZERTUA Espoloian, Tarantella taldearekin.

*CONCIERTO DEL MEDIODÍA, ofrecido por el grupo Tarantella en el Espolón.*



13:00 KUADRILEN KALEJIRA alaia INCANSABLES txarangarekin San Martin plazan hasita.

*KALEJIRA DE CUADRILLAS con la txaranga INCANSABLES comenzando por la plaza San Martín.*

# Maiatzak 28 astelehena

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Txartelak salgai Pol-Polen eta Kortazarren 10€tan. Bazkaria *INCANSABLES* txarangakoek eta Xapre eta Zarra trikitilariak animatuko dute.  
*COMIDA POPULAR en la plaza San Martín. Los tickets estarán a la venta en los bares Pol-Pol, Kortazar y San Joxepe, y costarán 10 euros. La comida estará animada por la charanga INCANSABLES y los trikitilaris Xapre y Zarra.*

17:00 Kuadrilen arteko JOKOAK.  
*JUEGOS entre cuadrillas.*

Ondoren...

*A continuación...*

Mr eta Ms Jator lehiaketa, bakoitzaren trebetasunak erakusteko ordua!  
Sari banaketa Jabier Gartzia Mr. BIZKAIA bergararrak egingo du!  
*Concurso de Mr. y Ms. Jator. ¡Es hora de demostrar nuestras habilidades!*  
*¡La entrega de premios la realizará el Mr. BIZKAIA de Bergara Jabier Gartzia!*

17:30 "BERGARA HIRIA" pilota txapelketako finalak.  
*Finales del CAMPEONATO DE PELOTA "CIUDAD DE BERGARA".*

19:00 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan Bergarako errektadoreen eskutik. Goizean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera. 16 urte arteko gazteentzat.  
*ESCUELA DE RECORTADORES en la plaza de toros. Los recortadores de Bergara enseñarán cómo saltar y hacer quiebros delante de las vaquillas. Para jóvenes de hasta 16 años.*

# Maiatzak 28 astelehena

19:30 KALEJIRA berriro herriko kaleetan Xapre eta Zarra trikitilariarekin eta Incansables txarangarekin.  
*PASACALLES por las calles de Bergara, con los trikitilaris Xapre y Zarra y con la charanga Incansables.*

22:30 KONTZERTUA Bideberrin *NO CREW*, *AZKAITER PELOX*, *TRIKIZIO* eta *EMON* taldeekin.  
*CONCIERTO en Bideberri con los grupos NO CREW, AZKAITER PELOX, TRIKIZIO y EMON.*



23:00 ERROMERIA Ene Bada taldearekin San Martin plazan.  
*ROMERÍA con el grupo Ene Bada en la plaza San Martín.*

23:00 CAMP DANTZALDIA Tarantella taldearekin Espoloian.  
*BAILE CAMP con el grupo Tarantella en el Espolón.*

Maiatzak 29  
asteartea

## UMEEN EGUNA

09:00 LASTURKO ZEZENAK Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan, INCANSABLES txarangak animatuta. Ondoren ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Bergarako errektadoreen eskutik. 16 urte arteko gazteentzat.

*VAQUILLAS en la plaza de toros instalada en el patio del Seminario, animada con la música de la charanga INCANSABLES. A continuación ESCUELA DE RECORTADORES. Los recortadores de Bergara enseñarán cómo saltar y hacer quiebros delante de las vaquillas. Para jóvenes de hasta 16 años.*

11:00 – 13:00 Pentekosteetako kartel lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan.

*EXPOSICIÓN DE LOS CARTELES presentados al concurso de carteles de las fiestas de Pentecostés, en los arcos del Ayuntamiento.*

11:30 – 13:30 HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.

*Recorrido turístico con el TREN LOCAL. Todas las salidas se realizan desde la plaza Fraiskozuri.*



Maiatzak 29  
asteartea

11:30 - 13:30 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, goming-a, kars-ak,... eta jolasak egongo dira!  
*PARQUE INFANTIL en el patio de Ipintza II. ¡Habrá castillos hinchables, goming, kars ... y juegos infantiles!*



# Maiatzak 29 astearte



12:30 HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA ETA DESAFIOA: Gipuzkoako Mari Jose Sardón eta Ernesto Ezpeta "Bihurri" Nafarroako Ana Berasategi eta Jose Inazio Floresen kontra, San Martín plazan. Lasto jasotzen, ingudea altxatzen, aizkoran...

*DEMOSTRACIÓN Y DUELO DE DEPORTE RURAL: los guipuzcoanos Mari Jose Sardón y Ernesto Ezpeleta "Bihurri" contra los navarros Ana Berasategi y Jose Inazio Flores, en la plaza San Martín. Levantamiento de fardo y yunque, aizkolaris...*



16:30 – 18:30 HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.  
*Recorrido turístico con el TREN LOCAL. Todas las salidas se realizan desde la plaza Fraiskozuri.*

16:30 – 18:30 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan eta JARDUN-ekin batera jolas eta tailerrak. Ondoren, Incansables txarangaren laguntzarekin, DENOK SIMON ARRIETA PLAZARA KALEJIRAN!!! Han...

*PARQUE INFANTIL en el patio de Ipintza II y juegos y talleres con JARDUN. A continuación, con la ayuda de la charanga Incansables, TODO/AS EN KALEJIRA A LA PLAZA SIMON ARRIETA. Y una vez allí ...*

18:45 ZORIONAK! ZIRIKA ZIRKUS taldearen ikuskizuna haurrentzat Simon Arrieta plazan.  
*Espectáculo infantil ZORIONAK! con la compañía ZIRIKA ZIRKUS, en la plaza Simon Arrieta.*

19:00 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan Bergarako errekortadoreen eskutik. Goizean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera. 16 urte arteko gazteentzat.  
*ESCUELA DE RECORTADORES en la plaza de toros. Los recortadores de Bergara enseñarán cómo saltar y hacer quiebros delante de las vaquillas. Para jóvenes de hasta 16 años.*



# Maiatzak 29 asteartea

20:15 – 21:00 eta 22:30 - 24:00 Tximeleta taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

*BAILABLES con el grupo Tximeleta en la plaza San Martín.*

24:00 BITORIANATXOREN IGOERA eta AGURRA Incansables txarangarekin, eta Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan.

*SUBIDA Y DESPEDIDA A BITORIANATXO, amenizadas por la charanga Incansables. Final de las fiestas de Pentecostés en la plaza San Martín.*

24:30 – 01:00 Tximeleta taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

*BAILABLES con el grupo Tximeleta en la plaza San Martín.*

# Ekainak 2 larunbata

Debagoieneko 3. trikitixa eguna. (Ikusi egitaraua 28. orrialdean)

12:00 Koldo Eleizalde lehiaketaren sari banaketa.

## Erakusketak / Exposiciones

- Aitor Sarasketaren pintura erakusketa, maiatzaren 11tik 29ra, Aroztegi aretoan.
- Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa, ekainaren 1etik 10era, Aroztegi aretoan.

# Jai biziak bizi



Alaitasuna, aldarre onak, ustekabeak, jostaketa. Jaiak gozatuz bizitzea. Horra zer opa dizugun guk ere. Horra, **kutxak** opa dizuna.





EKAINAK 2, LARUNBATA

## DEBAGOIENeko 3. TRIKITIXA EGUNA

- 10:30 Trikitilariet ongi etorria eta hamarretakoa Muribe plazan.
- 11:30 Kalejira Bergarako kaleetan.
- 13:00 Trikitixa jaialdia San Martin plazan.
- 14:30 Bazkaria San Martin plazan.
- 18:30-20:30 Erromeria Trikidantz taldearekin San Martin plazan.
- 23:00 Gozategi taldearen kontzertua San Martin plazan.



### MULTIOPTICAS

**GAES**  
Centros Auditivos

AHORA, ADEMÁS DE LA VISTA  
TE CUIDAMOS EL OÍDO

ORAIN IKUSMENAZ GAIN,  
ENTZUMENA ERE ZAITZEN DIZUGU



Ibargarai 16 • **BERGARA** • Tel.: 943 76 15 75

LAISTER

**GAES** BERRI BAT  
ZUGANDIK GERTUAGO!  
ZURRADERO KALEAN  
BERGARA eta ANTZUOLArako  
ESKLUSIBAN!



Otalora Lizentziatua, 18 behea • **ARRASATE**

Tel.: 943 71 27 93

J. Carlos Guerra 1 Tel.: 943 79 29 95	Ibargarai 16 Tel.: 943 76 15 75	Q/Nueva, 15 Tel.: 943 32 66 49	Bidebarrieta 2 Tel.: 943 20 05 22	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11	Mendibil M. G. Tel.: 943 63 99 01	J.M. Barandiaran Tel.: 943 88 99 88	San Frantzisko 23 Tel.: 943 69 84 70
<b>ARRASATE</b>	<b>BERGARA</b>	<b>DONOSTIA</b>	<b>EIBAR</b>	<b>ERRENTERIA</b>	<b>IRUM</b>	<b>ORDIZIA</b>	<b>TOLOSA</b>

Ahorronomina

EUSKADIKO KUTXA  
CAJA LABORAL

zure hileko aurrezkiak arduraz zaintzen dituen aurrezki-kontua  
una cuenta de ahorro que mimas tus ahorros mensuales



**ESKA EZAZU ZURE BULEGOAN  
RESERVALO YA EN TU OFICINA**

Gutxienezko diru-sarrera - Ingreso mínimo: 30€ • Gehienezkoa - máximo: 300€

Estaintza lehenengo 20.000 kontuentzat izango da • Kuota hilerdi ordainduko da Ahorronomina kontuan helbideratuta eta bezeroak edonoz aldatu ahal izango du • Kontua balio gabetzeagatik ez da zigorik edo komisioz ezarriko • Interesak urtero lizentziatuko dira • Santu gabeko kuotek ez dute komisioz edo zigorik eragingo • Bezero bakoitzeko kontu bat izango da gehienez • Ez dira onartzen ordainaginen helbideratzak

Oferta válida para las 20.000 primeras cuentas • La cuota se ingresa mensualmente por domiciliación en la cuenta Ahorro Nómina, pudiendo ser modificada por el cliente en cualquier momento • Cancelación sin penalización y sin comisiones • Liquidación anual de intereses • Las cuotas no ingresadas no dan lugar a comisiones ni penalizaciones • Máximo una cuenta por cliente • No se admiten domiciliaciones de recibos

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



UDAL  
MUSIKA BANDA

BANDA  
MUNICIPAL DE  
MÚSICA



**Bergarako Udal Musika Bandak** 175 urte bete ditu aurten. 1832.otsailaren 19an azaldu zen Bergarako Musika Bandaren lehen albistea. Data horretan musikariek proposamena aurkeztu zioten Udalari, beraien ekintzak burutzeko laguntza eskatuz. Udalbatzak baietza eman, eta hala hasi zuen bandak gaur ere Bergarako Udalarekin mantentzen duen harremana.

Gerora, 1905ean Eibarren azaldu zen banda, eta 1913.urtean Irunen izan zen Euskal Herriko Musika Banden Txapelketan lehenengo saria lortu zuen, R.Wagnerren "Rienzi" obrarekin.

1918an Bilboko Banda Txapelketan Euskal Herriko Bandei zegokien 2.saria eta estatu mailako hirugarrena irabazi zituen. 1978an Zarautzen izan zen Banda Txapelketan lehen saria eskuratu zuten, Usandizagaren "Mendi Mendiyan" obraren interpretazioagatik.

1983.urtera arte Zuzendari eta musikarien gain gelditzen zen izagaien irakaskuntza. Gaur egun, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen Bandak Musika Eskolan hezitakoak ditu 72 kideetatik erdiak baino gehiago.

Gainera, etorkizunean Udal Bandako kideak izango direnei lehen obrak interpretatzeko aukera ematen duen Gazteen Banda ere badago.

Tradizioa eta berrikuntza elkartuz Udal Bandak etorkizun paregabea dauka, are gehiago gaur eguneko partaideen gaztetasun eta gaitasunari begira, eta izagaien maila ona dela bide.

*La Banda Municipal de Bergara acaba de cumplir 175 años. La primera noticia de la existencia de una Banda de Música en Bergara data del 19 de Febrero de 1832, fecha en la que los músicos presentaron una memoria solicitando ayuda para financiar sus actividades. La Corporación accedió a la solicitud e inició así una política de ayuda que todavía hoy se mantiene.*

*Posteriormente aparece en Eibar en 1905, y en Irún en 1913 en el Certamen Musical de Bandas del País Vasco, donde el jurado le concedió el Primer Premio por la ejecución de "Rienzi" de R. Wagner.*

*En 1918 participó en un Concurso de Bandas de Bilbao, donde obtuvo el segundo premio correspondiente a Bandas Vascas y el tercero a nivel estatal. En 1978 consigue el Primer Premio en el Concurso de Bandas de Zarautz, gracias a la interpretación de "Mendi Mendiyan" de Usandizaga.*

*Durante todos estos años, y hasta 1983, eran los directores y músicos los que se dedicaban a enseñar e instruir a los jóvenes aspirantes. Actualmente la Banda dirigida por Alfredo Gonzalez Chirlaque tiene más de la mitad de los 72 componentes provenientes de Bergarako Musika Eskola, y además funciona una Banda Juvenil en la que ejecutan sus primeras obras los futuros componentes de la Banda Municipal.*

*La mezcla entre la renovación y la tradición hace que la Banda Municipal de Música se halle ante un futuro brillante, gracias a la capacidad y juventud de sus componentes y al alto nivel de los aspirantes a serlo.*



BERGARAKO  
UDALA

Bergarako Udalak

**jai zoriontsuak** opa dizkizue

El Ayuntamiento de Bergara  
os desea **felices fiestas**